

# LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

### [ A eredua ]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **3h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</li> <li>• Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez.</li> </ul>	60-70 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	120 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuretzat da**.

### 1. ariketa

**Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.**

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

**OHARRA:** Aukeran ematen zaizkizun testu zatitako bat sobera dago.

## OSASUNAREN NEGOZIOA, GERO ETA HANDIAGOA

Azken urtean mutualitateen jardunari lotutako bi lege berri onartu dituzte Espainiako estatuan, aurretik egiten ziren praktikak arautzeko, nolabait: ezintasun-prozesuen lehenengo urtearen kudeaketa eta kontrola arautzeko Errege Dekretua onartu zen iazko azaroan, eta Mutualitateei Buruzko Legea urte honen hasieran, lehenagoko arauetan sakabanatuta zegoena era ordenatuan biltzeko.

**1** ELA eta LAB sindikatuek, adibidez, mutualitateei eman zaizkien eskumenen kontra egin zuten joan zen apirilaren 28an, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Egunean. Mutualitateek patronalaren interesak defendatu eta enpresen lan zikina egiten dutela salatu zuen orduan ELAk.

Komenigarria da argitzea beste batentzat lan egiten duen pertsona batek bere osasunari lotutako bi gertaera mota jasan ditzakeela: gertakizun profesionala edo gertakizun arrunta. Lehenengoa lan-eremuan gertatutako gaixotasun eta istripuei dagokie, eta bigarrena handik kanpo gertatutakoei. Enpresek, legez, bi kasuetan erantzun behar diete langileei. **2** Zergatik diogun hori? Bada, enpresakerabakitzan duela gertakizun horietako bakoitza modu publikoan –Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren bidez– edo pribatuan –mutualitate bitartez– kudeatu.

**3** Hego Euskal Herrian, enpresen % 98 inguruk gertakizun profesionalak mutuekin kontratatzen dituztela dio Ibon Zubiela LAB sindikatuko Lan Osasuneko ordezkariak. Ondorioz, mutualitatea arduratuko da gaixotasunaren jatorria zehaztu, baja eta prestazio ekonomikoa eman, osasun-arreta eta prestazio farmazeutikoa eskaini eta, azkenik, alta emateaz.

Gertakizun arruntetan, berriz, hainbat eragilek hartzen dute parte, nahiz eta hitzarmena Gizarte Segurantzarekin bakarrik egin daitekeen. Osasun-sistema publikoko medikuari dagokio osasun-arreta eskaini eta baja ematea. Kudeaketa Gizarte Segurantzaren ardura da, eta prestazio ekonomikoa ere bai, enpresak mutualitate batekin kontratatu ez badu gertakizun arruntaren kontrola. **4**

Mutualitateen azken urteetako eskaria da gertakizun arruntetako baja-prestazioak bere kudeatu behar badituzte, altak emateko eskumena izatea, eta lege berriaren zirribororen batek alta moduko bat aurreikusten zuen.

**5** Baina alta eman ezin duten arren, alta-proposamenak egin ditzakete mutualitateek. Langilearen lehen baja-egunetik dute azterketa medikura deitzeko eskubidea, eta arrazoitu gabe joaten ez bada, prestazioa galduko du. Azterketa eginda lanera itzultzeko moduan dagoela irizten badio mutualitateak, alta-proposamena egin diezaioke familia-medikuari.

**6** Osakidetzak edo Osasunbideak aurretik baimenduta, bajaran dauden langileei beharrezko proba edo ebakuntzak egin diezazkiekete mutuek, gero familia-medikuari pasatzeko eta hark ebaluatzeko.

Gizarte Segurantzari egindako kotizazioetatik finantzatzen dira mutualitateak. Baina gertakizun profesioalarako kotizazioa altuagoa da gertaera arruntetarako baino, arruntak beste hainbat gauzatarako direlako: bajak, ezintasun iraunkorra..., baina ez osasun-arretarako. **7** Horrek eragiten du herritarren artean hain zabaldua dagoen ikuspegia; alegia, mutualitateek zerbitzu azkarragoa eta hobea eskaintzen dutela.

**8** «Eredu publikoaren eta pribatuaren artean, publikoa indartu behar dugu. Gainera, osasun-sistema publikoaren mesederako izango da».

1995ean onarturiko lan-arriskuen prebentzio-legeak, 1997an garatutako arau baten bidez, agindu zuen enpresek lan-arriskuen prebentzioa eskaini behar zutela, haiek finantzatuta. **9** Arau horren harira, mutualitateei prebentzio-elkarteak sortzeko baimena eman zitzaion, eta batzuek hala egin zuten. Mutualitateekin loturarik ez duten

prebentziorako sozietateek 20 urte daramatzate mutualitateen lehia desleiala salatzen. Kexa horien aurrean, legediak hartutako lehen neurria izan zen sozietateok mutualitateen espazio fisiko beretik bereiztea. Arazoak bere horretan zirauen, eta lege berriak ebatzi du mutualitateek ezin dutela jarraitu elkarte horiekin, saldu edo likidatu egin behar zituztela ekainaren 30a baino lehen.

**EIZAGIRRE, I. Argia, 2015eko azaroaren 22a. Egokitua.**

### 1. ariketa. Txertatu testu zatia

**OHARRA:** Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

- A.** Datu zehatzik ez dagoen arren, enpresek apenas kontratatzen dute gertakizun profesionalen kudeaketa publikoa.
- B.** Legea onartzeko garaian, desagertu egin zen puntu hori.
- C.** Sindikatuak lege horien aurka agertu dira, osasun-sistema pribatizatzen jarraitzeko asmoa ikusten dutelako atzean.
- D.** Horren barruan sartzen dira langileei ematen zaizkien aholkuak eta aldiro egiten zaizkien mediku-azterketak.
- E.** Lege berriek, halaber, atea ireki diote osasun-sistema publikoko itxaron-zerrendak arintzeko mutualitateen baliabideak erabiltzeari.
- F.** Desberdintasun horien aurrean, gertakizun arruntak zein profesionalak Gizarte Segurantzarekin kontratatzeko deia egin dute hainbat sindikatuk, horien artean LABek.
- G.** Baina gertaera mota batekoa edo bestekoa izateak baldintzatu egin dezake langileak jasoko duen osasun-arreta.
- H.** Aurrekontu orokorretatik bideratzen da hori.
- I.** Egoera horietarako, familia-medikuen eta Gizarte Segurantzakoen arteko harreman telematikoa lehenetsi da.
- J.** Hala bada, hari dagokio prestazio ekonomikoa eta bajaran dagoen langilearen egoera kontrolatzea.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Testu zatiak									

Soberakoa

**OHARRA:** Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

### 2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## EUSKAL KULTURAREN PRESTIGIOA, DENON LANA

Badakit euskal kulturaren inguruan eztabaida sakonak eta ikuspegi asko egon badaudela; izan ere, euskal kulturak gure gizartearen irudia eskaintzen du, eta gure herriaren adierazle nagusienetakoa da. Eta, batez ere, gure kultura gizarte osoaren ondare da. Ondare bizia, bizi dugun aniztasuna islatzen duena. Gurea bezalako errealitateetan gauzatzen den sorkuntza benetan aberatsa da, eta gure herriko kulturak ere ez du aurpegi bakarra. Euskara sorkuntza-hizkuntza duten adierazpen artistikoei berezko begirada eskaintzen diote munduari, ezinbestekoa. Eta gurean bada gaztelaniaz edo frantsesez egindako sorkuntza ere, edota hitzik gabe gure kulturaren errotzen dena, edota sustrai jakinik gabe garatzen den artea, edota nazioarte-mailan gure sortzaileek eraikitzen dutena. Ekoizpen herrikoiak zein sorkuntza garaikide aitzindariak; denek osatzen dute gure kultura, adierazpide horien guztien ezaugarri partikularrek osatzen baitute gure gizartearen arnasa.

Euskaraz ari diren gure sortzaileak eta sormen hori bultzatzen duten eragileak dira funtsean gure kulturaren eta hizkuntzaren garapenaren bermatzaileak. Gure gizartearen zutabe dira, gehienetan hala ikusten ez baditugu ere, eta nahitaezkoa da euskal kulturaren transmisioa bermatuko duten bideak haiekin batera urratzea. Euskaraz sortzen duten horiek, gainera, gure gizartearen baitan irlatxotan sakabanatuta daude, beste hizkuntza hedatuago baten erdian, egoera horrek sor ditzakeen gorabehereri «normaltasunez» erantzunez.

Maiz entzuten dugu Euskal Herriaren txikitasunak kontrastea egiten duela gure artisten mailaren handitasunarekin. Izan ere, hartzaile-masa kopuruak ez du sorkuntza mugatu; baina, kontuz, etorkizunean sortzaileek beharrezko duten askatasuna hipoteka dezake. Horregatik da hain garrantzitsua sorkuntzarako eta zabalkunderako baldintza eta estrategia komunak sustatzea eta hartzaileekiko konplizitatea lantzea. Bai euskal gizartearen elikatzeak eta baita gure gizartearen sorkuntzaren bidez munduarekin harremanetan jartzeko ere. Badakigu zein den kulturagintzak gizartearen egituratzeko, bateratzeko, garatzeko eta balioak eta ideologia zabaltzeko duen gaitasuna. Baina, era berean, merkatuen legearen arabera testuinguru lehiakorren bizi da gaur euskal kulturagintza. Teknologiek, gainera, adierazpen artistikoei eta zabalkundeari aukera eta erronka berriak ekarri dizkien aro berri batean murgildu

gaituzte. Eta etorkizuna hain zabal datorrelako du euskal gizarteak, hain zuzen, kultura eta sorkuntza inoiz baino beharrezkoago.

Garai erabakigarri hauetan politika publikoek euskal kulturari begiratzeko modua oso garrantzitsua da. Horregatik erabat ezinbestekoa da koordinazioa, helburuak adostea eta egitekoen banaketa eraginkorra lantzea. Ez erakundeen ospea hanpatzeko, baizik eta gure sortzaileen adierazpenerako espazioa eta askatasuna bermatze aldera. Ezbairik gabe, sortzaileek beren lana garatzeko behar dituzten baldintza egokiak bultzatzeak bakarrik ekar dezake euskal kulturagintzaren maila goratzea. Eta horretan erakunde publikoek dute giltza, gizartearen inplikazioarekin.

Erakundeek, eragileek eta artistek badute elkarren arteko beste zeregin garrantzitsu bat: euskal kulturarekiko zaletasuna bultzatzea; eta horrek ere epe luzera begirako egitasmo bat garatzea eskatzen du. Eredu berriak sortu behar dira hartzaileen identifikazioa eta konplizitatea lortzeko: ezin dira erosle edo kontsumitzaile soilak izan, hartzaile konbentzituak baizik. Euskal kulturaren kritikatzailerak baino gehiago, zale kritikoak behar ditugu. Aktibismo engaiatu hori egon badago gizartean, baina bizi-bizirik mantentzeak etengabeko lana eskatzen du; eta indartu eta zabaldu beharra dago. Hedabideetan eta sareetan kontzientzia hori bera ere erein behar da, gure gizartearen izanetik izango garena helburu dugula. Telebistak, esaterako, eredu berriei erantzun behar die, gure kulturagintzari ikusgarritasuna emanaz; sareetan duen presentzia ere mantendu eta indartu egin behar da, etengabeko eraldaketei adi. Eta batez ere, gure kulturaren kontsumoa bermatuko duten eredu berriak sortzen asmatu behar dugu, guztion partaidetzarekin, testuinguru lehiakor honetan euskal sorkuntzak dagokion presentzia eta zabalkundea izan ditzan.

Kultura etengabeko erronken aurrean bizi da, horixe baita bere izaera; horregatik egindakoa ez da inoiz nahikoa izaten, beti dago asko egiteko. Eta aurrera egite horretan behar-beharrezkoa da baita ere baliabideak bideratzea, jada ditugun azpiegiturak egokitzea, gure sortzaileei eta gure kulturari prestigioa ematea, kulturarekiko eta artearekiko maitasuna transmititzea, eragilea izango den industria laguntzea, emakumeen begirada bermatzea, euskal kultura eta kultura

*vascoaren* arteko harremanaz hausnartzea... Horrek guztiak, gure herriaren identitateari arnasa emateaz gain, munduan jarriko gaitu modu natural batean.

Ospe, maitasun eta zaletasun horiek lortzeak sukaldeko lan handia eta plangintza zehatza eskatzen du, noski. Baina egindako inbertsioa ez da artistek

jasotzen dituzten txaloekin edo sariekin amaituko, datozen belaunaldiari hori bermatuko duen bidea erakustea baita azken helburua.

Izan ere, kultura eta sorkuntza ez dira garestiak, beharrezkoak baizik.

GOENAGA, A. *Berria*. 2016ko iraila. Egokitua

## 2. ariketa. Aukeratu erantzuna

### 10. Zer dio egileak euskaraz ari diren gure egileez?

- a) Ezinbestekoak direla hizkuntzan, kulturen eta gizartean.
- b) Sakabanatuta aritzeak baduela sortzaileontzat abantailarik ere.
- c) Zailtasun handiak dituztela egoera gutxituan daudelako.

### 11. Zer dio Goenagak Euskal Herriaren txikitasunari buruz?

- a) Hartzaile gutxi izateak kultura-sortzaileen lana baldintza dezakeela.
- b) Atzerritik datozkigun kultur adierazpenak mugatu beharra dagoela, hemengoekin orekatzeko.
- c) Behartzen dituela eragileak nazioarteko baldintzak eta estrategiak onartzera.

### 12. Zer erronka du gaur egun kulturgintzak, egilearen iritziz?

- a) Teknologia berriez baliatzea balioak eta ideologiak gizartean zabaltzeko.
- b) Teknologia berrien eta merkantilizazioaren aroan lehiatzea.
- c) Kulturgintzaren kalitatearekin batera, hartzaileen zaletasuna ere handitzea epe labur batean.

### 13. Zer esaten du egileak erakunde publikoez?

- a) Haien arteko koordinazioa bermaturik, gainerako eragileekikoa sustatu nahian dabiltzala.
- b) Haien esku dagoela euskal kulturgintzaren egoera hobetzea.
- c) Haien ardura dela kulturaren maila eta kulturarekiko zaletasuna goratzea.

### 14. Zer dio egileak aktibismoaz?

- a) Luzera begira baizik ezin izango dela lortu.
- b) Kritikoek kalte besterik ez dutela egiten.
- c) Egon badagoela, eta elikatu eta handitu egin behar dela.

### 15. Zer egin beharko lukete hedabide eta sareek, Goenagaren iritziz?

- a) Gure kulturgintzari oihartzuna eman eta saiatiago aritu kulturarekiko konpromisoa pizten.
- b) Kontsumoa bermatu, kalitatea gorabehera, eskaintza egiazko eskaerara egokituaz.
- c) Nolako gizartea izango dugun aurreikusiaz diseinatu eskaintza kulturala.

### 16. Zerk jarriko gaitu munduan, egilearen ustez?

- a) Euskal kulturari eta kultura *vascoari* prestigio bera emateak.
- b) Orain arte egindakoa nahikoa ez dela onartzeak.
- c) Kulturaren erronkei etengabe erantzuten laguntzeak.

## 3. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## SEGURTASUN SOZIALAREN PRIBATIZAZIORIK EZ

Orain dela gutxi arte, langileen aurrezkiak inbertsio zuzenak areagotzeko erabiltzen zirela uste izan da. Pentsio-fondoak aktibo bilakatzen ziren heinean, lan-ekonomialariek espero zuten langileek beren aurrezkiak erabiltzea industrian inbertsioak eginez, etxeak eraikiz edo/eta heziketarako maileguak eginez, lan-indarraren egoera hobetzearren. Horrela, Alemanian kasu, sozialdemokratek lan-aurrezkiak erabili zituzten industria-inbertsioa zuzenean finantzatzeko laguntzeko. Modu horretan langileek kudeaketan parte hartuko zutela espero zen. Baina alderantzizkoa gertatu da, alegia, keynestarrek espero zuten «aurrezkiak berdin inbertsioak» delako berdinketatik alde egitea.

Izan ere, gaur egunean gertatzen dena erabat desberdina da, eta segurtasun sozialaren pribatizazioa sistema desberdin horren zati garrantzitsua da. Gaur egun, orain dela belaunaldi bat uste eta aldarrikatu zenaren aurka, arazo nagusia ez datza kapitalismoaren eta «komunismoaren» arteko aukeran, baizik eta kapitalismo barruan ea finantza ala industria izango den sistema ekonomikoaren fokua. Alde batetik, ohiko kapitalismo industrialak daukagu: lan-indarra enplegatuz, superabit bat lortzearren, inbertsio berriak eginik, produkzioa eta merkatuak areagotzea, eta horren bidez mozkinak eskuratzea duena xede. Horixe da ekonomialari klasikoek ikertu dutena azken bi mende hauetan. Beste aldetik, gero eta gehiago sistema finantzario berri eta berezi bat garatu da, zeinak industria bere xede gisa aldarrikatzen duen, baina, izatez, beste helburu desberdin batzuk dauzkan. Helburu horiek oso urrun daude inbertsio industrial zuzenetik: segurtasun soziala pribatizatuz arriskatzen dena ezin da ulertu sistema industrialaren eta sistema finantzarioaren arteko antagonismoa entelegatu gabe.

Kapitalismo industrialaren garapen konkretutik azaldu dena ez da ekonomialari askok, Marxek barne, uste zuena, ekonomia finantzarioa baizik. Gizartea aldatzen duen dinamika ez da produktibitatea eta bizimodua altxatzen eta hobetzen dituen ingeniari-tza teknologikoa, paper-aberastasunerako merkatu-prezioak areagotzen dituen ingeniari-tza finantzarioa

baizik; hau da, gizartearen errenta eta aktiboekiko aseguru-eskarietan aritzen dena.

Segurtasun sozialaren pribatizazioaren aldekoek uste dute burtsa-baloreen merkatuan pentsio-fondoaren hazkundeak kapital-sarrera handiagoa sortuko duela. Baina ondoko galderari erantzun beharko liokete: zer dela eta lotu behar diote inbertitzaileek beren kapitala lantegi berriak edo beste ekoizpen-bideak eraikitzeari, burtsa-baloreen merkatuaren olatua kontrolatuz, ia bermatutako kapital-gainbalioak lortu ahalko badituzte? Kapital-makineria sofistikatu den neurrian, lan-indar garestiagoa behar izan da makineria horrekin lan egiteko. Langileek nolabaiteko oparotasuna ezagutu dute lehen munduan. Baina beren dependentzia, izatez, finantzario bilakatu da. Lan-indarrak aurrezkiak bereganatu ditu, etorkizuneko erretira-errentarako, pentsio pribatuen planetarako eskari gisa, baita etxeak, automobilak eta kontsumo-ondasun iraunkorrak kreditutan erosteko eskaerak ere. Aurrezki horiek ez dira eskuragarri gastu korronteetarako. Hortaz, langileak zorretan sartu dira, beren errentaren zati bat interesetan eta zama horietan gastatuta.

Ondorioz, langileak ustiatzeko beste modu bat ezagutu da, ez beraren txirotasunarekiko eta lanarekiko ohiko dependentziagatik, beraren oparotasunagatik baizik. Lehen munduan soldatak nahiko altxatu dira; bitartean langileek aurrezki askotxo sortu dituzte, aurretik ordaindutako segurtasun sozialaren eran eta pentsio pribatuko planen forman. Horrela, langileak aldi berean dira aurreztaileak eta zordunak. Behartuak dira zorretan egotera, eta «bermatuta» daude ekonomiaren merkatu finantzarioetan. Beste alde batetik, lan-indarrak duen gero eta ez-segurtasun finantzario handiago hori lagungarria da soldata-mailak ez igotzeko.

Lan-indarra ez dago esplotatuta Marxen plusbalioaren teoriaren arabera. Pentsio-fondoko kapitalismoak lan-indarraren aurrezkiak mobilizatzen ditu burtsa-baloreen *booma* finantzatzearren. Izan ere, aurrezki horiek guztiak finantza-erakundeetan eta burtsa-baloreetan daude zuzendurik. Erretira-fondoak eta

segurtasun sozialeko fondoak ez dira zuzenki inbertitzen lanpostu berriak sor ditzakeen ekoizpen-bide berrietan. Kapitalismo mota berri honetan saltzen direnak ez dira ondasunak eta zerbitzuak, burtsa-baloreak, obligazioak eta jadanik existitzen diren beste aktibo batzuk baizik.

Kargatutako komisioen bidez, finantza-gestiogileek aurrezki horien irabaziak eta dibidenduak eskuratu dituzte (langileek eskuratu ordez). Hortaz, finantza-ekonomiak ekonomia errealetik dirua desbideratzen duen heinean, aktiboen prezio-inflazioa ondasunen prezioaren eta soldaten deflazioarekin batera joango da, produkzioa gutxituz. Horixe da egunotan nonahi ikusi duguna, finantza-kapitalismoak kapitalismo industrialaren lekua hartu du, eta hori langileen izenean.

Konturatuko ote dira hemengo sindikatuak, batez ere sindikatu abertzaleak, zer-nolako tranpatan sarturik gauden? Izan ere, hemen ere, finantza-mundua gure aurrezkiekin jolasten ari da. Okerrena da gure aurrezkiek sistema finantzario berezi bat bultzatzen dutela, zeinak barneko merkatuak eta lan-indarra bera estutzen baititu. Esan bezala, lehen, langile-kudeaketaren bidez, uste zen sindikatuen bitartez langileek ekonomiaren aurrezkiak gestionatzen lagunduko zietela ekoizpen-bideak

areagotzeko, hobetzeko, lanpostuak gehitzeko, eta langileen bizi-baldintzak hobetzeko. 1970eko hamarkadan, aurrekontu publikoek inbertsio publikoa baztertzen zutela salatu zen. Orain, finantza-inbertsioak inbertsio pribatu zuzena baztertzea mehatxatzen du. Egunotan finantza-ekonomia da nagusi eta horretaz deus gutxi eztabaidatzen da.

*Wall Street Journal* egunkarian irakur daitekeenez, inbertitzaileen helburua segurtasun soziala da: milioika dolarreko dirutza, langileek erretretarako daukaten aurrezkien diru multzoa. Metodoa: segurtasun soziala pribatizatzea. Era horretan, eta atera daitezkeen mozkinak kontuan hartuta, inbertsio bankarioek, segurtasun-elkarteek, merkataritza-bankuek eta artekaritza-etxeek aparteko *lobby* presioak jartzen dituzte segurtasun soziala pribatizatzeke. Gaur egun, eta, kasu, Ameriketako Estatu Batuei dagokienez, dolarretan bilioi batzuek ari gara. Dirutza hori azpiegitura produktiboetan, enpresetan, makinerietan, teknologian, ikerkuntzan eta garapenean, irakaskuntzan eta lanpostuetan erabil zitekeen. Hori gertatu barik, burbuila finantzarioa handituz doa, etengabe, gainera. Tartean ekonomialari gehienek balizko kapitalismoari eusten diote. Noiz arte?

TOBAR-ARBULU, J. *Berria*. 2012ko uztaila.  
Egokitua.

### 3. ariketa. Aukeratu erantzuna

#### 17. Ekonomialariek egindako aurreikuspenak direla eta, zer gertatu da egilearen ustez?

- a) Langileek aurreztutako dirua ez dela inbertsio bilakatu.
- b) Lan-aurrezki gehienak herri-garapenean inbertitu direla.
- c) Pentsio-fondoan aktiboek industriaren hazkundera suspertu dutela.

#### 18. Zer aldatu da aurreko gizalditik hona?

- a) Lehen ez bezala, orain sistemaren ardatza finantzetan dago.
- b) Orain kapitalismo industrialaren barruan hainbat joera daude.
- c) Segurtasun sozialak utzi egin dio sistema finantzarioaren xede izateari.

#### 19. Zerk aldatzen du gizartea, Tobar-Arbuluren ustez?

- a) Teknologiaren esparruko ingeniariak, gizartearen aktiboak bermatzen dituelako.
- b) Kapitalismo industrialaren etengabeko garapenak.
- c) Finantza-sistemak, salneurriak igotzen dituelako.

- 20. Zergatik dio egileak langileak zorretan sartu direla?**
- a) Kapital-makineriaren sofistikazioak mendekotasun finantzarioa bikoiztu duelako.
  - b) Zerbitzu eta ondasun batzuk zorretan eskuratzen dituztelako: aurreztutakoarekin ez dute nahiko.
  - c) Burtsa-baloreen merkatuko pentsio-fondoek hazkundeak kapital-sarrera eten duelako.
- 21. Zer kontraesan aipatzen du Tobar-Arbuluk langileez?**
- a) Diru asko daukate, baina esplotatu egiten dituzte.
  - b) Badute dirurik aurreztuta eta, era berean, dirua zor dute.
  - c) Segurtasun finantzarioa dute, baina ez dute segurtasun ekonomikorik.
- 22. Zein dira kapitalismo berriaren ezaugarriak, egilearen aburuz?**
- a) Salgai ekonomikoak izatetik salgai finantzarioak izatera igaro da.
  - b) Lanpostuak suntsitzen ditu finantza-erakundeek jubilazio-funtsekin bidez.
  - c) Burtsa-baloreek, obligazioek eta aktiboek errentagarri izateari utzi diote.
- 23. Zer ikusten dugu edonon, Tobar-Arbuluren ustean?**
- a) Finantza-gestiogileek etekinak lortzen dituztela soldaten deflazioarekin.
  - b) Aktiboek prezio-inflazioak ez duela bat egiten ondasunen prezioarekin.
  - c) Ekoizpena murriztu egin dela, finantzen ekonomiak ekonomia industrialia ordeztu duelako.
- 24. Zer dio egileak sindikatuez?**
- a) Langileen aurrezkiak egoki kudeatzen lagundu dutela.
  - b) Ematen duela ez direla ohartzen hausnarketaren beharraz eta egoeraren larriaz.
  - c) Finantza-inbertsio pribatu zuzena baztertu dutela.
- 25. Zer agertu da *Wall Street Journal* egunkarian?**
- a) Zenbait eragilek *lobby*a sortzeko asmoa dutela segurtasun soziala privatizatzeko.
  - b) AEBn aukera ezin hobea galdu dutela langileen aurrezkiak herrialdea hobetzen erabiltzeko.
  - c) Inbertitzaile batzuek segurtasun soziala privatizatu nahi dutela dirutza lortzeko.



## Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa.
  - Euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.  
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

## 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.  
**Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.  
Oharra: **asmatu izenpea** azterketaren anonimotasuna bermatzeko.

**GAIA:** Arloburuaren lanpostua hutsik geratu da lanpostu hori betetzeko deialdia egin ostean. Zu arlo horren zuzendaria zara eta, egoera horren aurrean, lanpostu hori arloko teknikari bati eskaintzea pentsatu duzu, zuzen-zuzenean.

Idatzi eskutitza, zure arrazoibideak azalduz, teknikari hori arloburu izan dadin konbentzitzeko.

**2. ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako**

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu. **Bat aukeratu** eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
  - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
  - Ideiak **garatu** eta **lotu** egin behar dituzu.
  - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

**TESTU AIPAMENAK****1.****POBREZIAK HIL EGITEN DU**

Txiroen bizi-itxaropena ez da hazten aberatsena bezala, eta horren oinarrian egiturazko eragileak daude, baina agintariak ezikusi egiten die, ez diete aurre egin nahi. Horixe kritikatu dio makroikerketak batek OMERi; alegia, ezberdintasunaren kontra ezer ez egitea.

1,7 milioi pertsonako laginarekin egindako makroikerketaren ondorioa argia da: pobrezia eta gizarte-desberdintasuna oso kaltegarriak dira osasunarentzat; pobrezia laburtu egiten du bizia, ia sedentarismoak beste, eta obesitateak, hipertentsioak eta alkohol larregi edateak baino askoz gehiago. Haatik, Osasun-agintaritzek, herritarren osasuna hobetu nahian ari direlarik, norbanakoek eginbeharrekoak azpimarratzen dituzte (egizu kirola, ez erre...), eta ez gizarte-eragileak, egiturazkoak.

SALAS, J. *El Pais*. 2017-02-02  
Egokitua

**2.****ZIENTZIA ETA HUMANITATEAK**

Gaur egun, Humanitateek garapen teknologiko gero eta handiagoaren mehatxupearan ikusten dute beren burua. Baina, zientziaren alderditik ere sarri izan dira kexu beren diziplinak ez dielako inolako interesik sortu humanistei, eta kultura deitzen dugunetik kanpo utzi dituztelako zientzialariak maiz: ezjakintzat jotzen da “Kixote” irakurri ez duena; baina, aldiz, oso normaltzat jotzen da Termodinamikaren 2. printzipioa ez ezagutzea, nahiz eta, gure unibertsoa ulertzeko, giltzarria izan.

Batera zein bestera, gaur egun ezin da ukatu diziplina humanistikoek gero eta leku gutxiago dutela unibertsitateetan. Eta horren ondorioa da existentziaren alderdi emozionalaren eta hartu-eman komunikatiboen atrofia, zeina batez ere sare sozialetan nabari den, baina baita artearen edota ikuskizunen alorrean ere.

C. FANJUL, S. *El Pais*. 2017-02-08  
Egokitua

3.

**ONARRIZKO ERRENTA**

Automatizazio eta teknologiaren aurrerakuntzak dakarren lan- eta produkzio-testustuinguru berrian, hauxe da ezkerren mantra berria: oinarrizko errenta, edo guztiontzako soldata moduko bat.

Finantzazioak ez ditu kezkatzen nonbait, eta testuinguru horretarako aurreikusi duten neurrietako bat makinek “langileek bezala” kotizatzea da, hots, makinaren erabilera zergapetzea.

Oinarrizko errentaren ametsa, baina, joan den mendean baztertu zen, zeren zailtasun praktiko, politiko eta ekonomiko gaindiezinak planteatzen zituen. Eta, gaur egun, ekonomia ireki eta global batean murgildurik, halako errenta baten dei-efektuak zeharo kaltetuko luke zeinahi eskualdetako ekonomiaren sostengarritasuna. Inozoa da hori proposatzea, eta immorala existitzeagatik soilik kobratu nahi izatea.

BELLOSO, M. A. *El Mundo*. 2017-02-05.  
Egokitua

5.

**ZIBERRERASOAK**

2015ean, Espainia izan zen munduan ziberreraso gehien jaso zituen 3. herrialdea. Zibersegurtasunean inbertitzen dena % 10-12 bat hazten da urtero, eta Mcfee antibirus-enpresaren arabera, urtean 400.000 milioi dolar gastatzen dira mundu osoan ziberdelituen aurka; kapitalen lapurreta, industri espioitza eta identitatearen ordezkapena saihesteko bereziki.

Merkatu horrek hiru zutabe ditu: ziberdelinkuentzia, zeinak herritarrak erasotzen baititu bereziki; ziberespioitza, zeinak enpresa eta gobernuen eragiten baitie; eta, azkena, ziberterrorismoa.

Ziberterroristek, oraintsu arte, propaganda egiteko eta jarraitzaileak errekutatzeke baliatu izan dute internet; baina, gaur egun, azpiegitura kritikoak erasotzeko gaitasuna ere badute. Are gehiago, adituen ustez, jada oso handia da, kalte ekonomikoez harago, biktimak ere eragin litzaketen balizko ziberrerasoen arriskua.

SANCHEZ, C. M. *XLsemanal*. 2015-07-19  
Egokitua

4.

**ETENGABEKO IKASKUNTZA**

Mundu gero eta konplexuago honetan oso ohikoa gerta daiteke langintza mota bat baino gehiagotan aritu behar izatea bizi garen artean. Beraz, gero eta gehiago, ezinbestekoa da bizitza osoan ikasten jardutea.

Ikuspegi horretatik begiratuta, lan-eremuetan, lan eginaz ikastea izango da etorkizuneko ikaskuntzaren giltzarrietako bat. Erronka itzela da antolakunde zein langileentzat; izan ere, autoikaskuntzaren testuinguru horrek, ezinbestean, zenbait gaitasun eskuratzea eta kudeatzea eskatzen du, hala nola informazioa kudeatzekoa, sarean lan egitekoa eta etengabeko ikaskuntza.

Erronka handia da zalantzarik gabe, baina, bestalde, eztabaidaezina da etengabeko autoikaskuntzak abantaila handiak eskaintzen dituela: efizientzia, lehiakortasuna, berrikuntza...

DRUCKER, P. *Aprender a aprender*. 1969

6.

**EGUZKI ZERGA**

Espainian 2016ko apirilaz geroztik “eguzki-zerga” ordaindu beharra dugu baldin eta argindar-sare orokorrera lotuta gaudelarik, eguzki-energia baliatzen badugu etxerako.

Gobernuaren iritziz, eguzki panelak izan edo ez, sare elektriko orokorra ezinbestekoa da guztiontzat: eguzki-energia ez da konstantea, eta ez dago erabilgarri nahi dugun guztietan. Beraz, eguzki-panelen bidezko elektrizitatearen autokontsumoa orokortuz gero, fakturaren zati finkoa garestitu behar izango luke sare orokorra mantentzen jarraitzeko.

Baina zati finkoa igotzea erabaki antisoziala da gobernuaren ustez, zeren, modu horretara, eguzki-instalakuntza ordaindu ezin duten herritarrak zigortzen arituko ginatke eguzki-energia kontsumitzearen alde egin dutenen erruz.

<http://www.solventia.net.2016/05>  
Egokitua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



■ **1. ariketa:** txertatu testu zatia.

■ **Irakurgaia:** «OSASUNAREN NEGOZIOA, GERO ETA HANDIAGOA»

<b>Hutsuneak</b>	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.
<b>Testu zatiak</b>	C	G	A	J	B	E	H	F	D

<b>Soberakoa</b>	I
------------------	---

■ **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «EUSKAL KULTURAREN PRESTIGIOA, DENON LANA»

	A		A		B		B		C
	A		C						

■ **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «SEGURTASUN SOZIALAREN PRIBATIZAZIORIK EZ»

	A		A		C		B		B
	A		C		B		C		